

## 'Pornografia eta hezkuntza: arazo global baterako gerturatze integrala' ikastaroaren balorazioa

**Gazteen Euskal Behatokiak 2024ko formakuntza planeko bi ikastaro antolatu ditu apirilean gaiaren inguruan**

'**Pornografia eta hezkuntza: arazo global baterako gerturatze integrala**' ikastaroaren bi edizio antolatu ditu Gazteen Euskal Behatokiak apirilean, bata Gasteizen eta bestea Bilbon. Formazio honen helburu nagusia zera izan da, pornografiak pertsonen iruditeria erotiko kolektiboaren eraikuntzan nola eragiten duen aztertzea, eragin hori minimizatuko duten hezkuntza kontrapisuak non eta nola aplikatu behar diren jakiteko.


Ikastaroak **Raúl Marcos Estradak** eta **Miren López de Arregui Lakuntzak** (EMAIZE sexologia zentroko langileak) eman dituzte.

**41 lagunek** partehartu dute ikastaroan. Bertaratu direnen lan-profilak hauek izan dira:

- % 47 hezkuntza arautuari lotutako lagunak izan dira.
- Beste % 32 gazteen arloko langileak (gazte informazioa, udalak, foru-aldundiak, gazteen elkarteak, gizartean eta hezkuntzan esku hartzen duten taldeak eta beste erakunde batzuk) izan dira.
- Azken % 21ak bestelako lan-profilak batzen zituen.

Ikasleen batez besteko balorazioak honako hauek izan dira (0tik 10era bitarteko eskalan):

### Ikastaroaren balorazioa (batez bestekoa, 0tik 10era doan eskalan)



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, ikastaroan parte hartu dutenen artean egindako balorazio inkestetako emaitzak oinarri hartuta*